

## DEIALDIA (2021-22)

### VILLAMONTE ETA ROMO KULTUR ETXEETAKO GELAK ESKATU

Getxoko Kultur Etxeak epea zabalduko du Villamonteko Kultur Etxeko eta RKEko gelak eskatzeko, zerbitzuak gaur indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrietara egokituz. Orain arte egin izan den bezala, edukierak eta protokoloak egokituko dira langileentzako nahiz erabiltzaileentzako berme guztiak edukitzeko. Neurri horiek noiznahi alda daitezke araua doitu behar izanez gero, baina, gaur egun, 1,5 m-ko distantzia soziala bermatzen du bertaratutako bakoitzaren perimetro osoan.

- **Deialdia:**

2021eko ekainaren 14tik 30era arte epea zabalik egongo da, 2021eko urriaren 4tik datorren 2022ko ekainaren 30 bitartean RKE eta Villamonte Kultur Etxeetako aretoak erabili nahi duten elkarte kulturalentzat.

- **Eskabidea:**

Eskabidea zuzen bete, sinatu eta [gelak@getxo.eus](mailto:gelak@getxo.eus) helbide elektronikora bidali beharko da, erregistro telematikoaren bidez, edo Kultur Etxean edo Udaleko Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eskuragarri dagoen edozein erregistrotan entregatu beharko da.

- **Ebazpena eta komunikazioa:**

Uztailaren 30ean erantzungo da. Orain onartzen diren eskaerek lehentasuna izango dute aldian behin eta epe honetatik kanpo egiten direnen aurretik.

Eskabidea onartzean, gelak erabiltzen hasi baino 15 egun lehenago, Kultur Etxeko lokalak erabiltzen diren bitartean erabiliko diren prebentzio-neurriak edo protokoloak aurkeztu beharko ditu erabiltzaileak. Gainera, esteka honetan eskuragarri dagoen erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute:

<https://forms.gle/hvhbyzMPcw2gZNvR8>

#### **RKEko EDUKIERAK**

GELA	EDUKIERA 1 *	EDUKIERA 2*
210+211	6	10
212	3	4
215		5
216	6	9
ARETO NAGUSIA		94

- EDUKIERA 1eko gelak tailerra egiteko mahaiak (0,70 x 1,40 m) edo (0,80 x 0,80 m) eta aulkiak izango ditu, 1,5 m distantzia perimetrara errespetatuz.
- EDUKIERA 2ko gelak paladun aulkiak izango ditu, mahairik gabe eta betiere 1,5 m distantzia perimetrara errespetatuz.
- Erabiltzaileak gela bateko aulkiak edo altzariak lekuz mugitu ditzakela, betiere erabilera amaitutakoan, gela hasierako moduan uzten badu.
- Beste erabilera batzuetarako edukiera GALDETU beharko da.

<b>GORPUTZ-ADIERAZPENEN GELAK</b>	
501	7
502	10
503	7
513	4

<b>MUSIKA-ENTSEGUETARAKO KABINAK</b>	
516	2
517	2
518	2

### **VILLAMONTEKO EDUKIERAK**

Ikasturtean zehar Villamonten lanak egitea aurreikusita dago, horrek eragin dezake urteko egun batzuetan ezin erabiltzea esleitutako aretoa.

<b>GELA</b>	<b>AFOROA</b>
ERABILERA ANITZEKOA 1	24
ERABILERA ANITZEKOA 2	27
ERABILERA ANITZEKOA 3	10
ERABILERA ANITZEKOA 4	15
ERABILERA ANITZEKOA 1+2	56
ERABILERA ANITZEKOA 3+4	30
ERABILERA ANITZEKOA 1+2+3+4	86